









Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena. El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

## **GAZTEDIAREN ALDEKO AKORDIOA**

## Iñigo Urkullu Renteria

## Bilbao, 2020ko ekainaren 26a

Arratsaldeon eta eskerrik asko zuen hitzengatik eta ekarpenengatik. Bost Akordio nagusi jasotzen ditu gure Programak. Egian esan, ilusio handia egiten dit horietako lehena, Gaztediaren Aldeko Akordioa, zehazki, zuekin partekatzea. Akordio horrek konpromiso bat azpimarratu nahi izan du: zuekin batera lan egingo dugu; zuekin batera garatuko ditugu gure ekinbideak.

Emantzipazioa aipatuz hasiko naiz. Euskadiko gazteak, Europako batez bestekoak ez bezala, ezin dira familia etxetik atera 30 urte inguru izan arte. Denon artean aldatu behar dugun egoera da hori. Gure zeregina da eragozten dizueten oztopoak gainditzen laguntzea. Konpromiso zehatz bat hartu dugu. Hau da, gure Programaren emantzipazio-adina 28 urtera arte jaisteko aukera ematen duten ekimenak abian jartzea.

Emantzipazioaz ari bagara, bi funtsezko gaiez ari gara: enplegua eta etxebizitza. Funtsezko beharrak bizimodu independentea errazteko eta familia osatu ahal izateko. Horiexek dira gure proposamenen ardatz nagusiak. Konpromiso horiei erantzuteko, gazteriaren euskal legea onartuko dugu. Gaztediari dagozkion eskubideak eta betebeharrak finkatzea ahalbidetuko duen tresna berri bat izango da lege hori. Berme berriak eskainiko duen legea.

Me ilusiona compartir este acto y escucharos. La explicación es sencilla: representáis nuestro presente y futuro. Entre todas y todos debemos construir el presente y el futuro. Nuestro Programa contiene cinco Compromisos. Cinco Acuerdos nucleares para la próxima legislatura. El primero de todos es el Compromiso con la Juventud y las familias. Este Compromiso tiene un objetivo claro y definido: facilitar la emancipación de la juventud; de cada joven.

Soy consciente de que cada uno de vosotros y vosotras tenéis que escribir vuestra propia vida, de vuestro puño y letra. Sin falsos paternalismos. La juventud vasca, a diferencia de la media europea, no puede emanciparse hasta una edad cercana a los 30 años. Es una situación que entre todos tenemos que cambiar. El compromiso de nuestro Programa es poner en marcha todas las iniciativas que permitan revertir esta situación y reducir la edad de emancipación hasta los 28 años. Este compromiso es una necesidad social. La sociedad vasca está perdiendo el potencial de formación, cambio y compromiso que atesoráis.

Nuestro compromiso es integral. Vamos a aprobar una ley vasca de juventud. Es una palanca de cambio. Un nuevo instrumento que permite fijar el marco de derechos y obligaciones. Una ley que incorpore la mirada juvenil a todas las políticas públicas.

Hoy emancipación es, ante todo, Empleo y Vivienda. El empleo es condición necesaria. Empleo ligado a formación. A más formación más empleo y de mejor calidad. Nuestro compromiso es aprobar un Plan de choque de empleo juvenil, integrado en una Estrategia global de reactivación económica. Un plan de choque que posibilite un empleo y una primera experiencia laboral a 30.000 jóvenes. Este Plan de empleo juvenil tiene como pilares básicos:

- Transición del mundo educativo al mundo laboral;
- Formación dual tanto en formación profesional como en la universidad;
- Formación y experiencia laboral, mediante becas con compromisos de contratación.

Este Plan de empleo juvenil compromete una ventanilla única para facilitar la creación de empresas y el autoempleo de las personas jóvenes emprendedoras. Este Plan de empleo juvenil compromete impulsar los sectores emergentes: nuevas tecnologías de la información; medioambiente y lucha contra el cambio climático; actividades relacionadas con los cuidados; innovación social; industrias culturales y creativas. Este Plan de empleo juvenil facilita el acceso prioritario a los Planes Locales y Comarcales de empleo; la inclusión laboral de jóvenes en riesgo de exclusión; los itinerarios de inserción profesional a través de Lanbide. Este Plan de empleo juvenil incentiva las vocaciones científicas y tecnológicas en la adolescencia y, especialmente, entre las mujeres jóvenes; apuesta por responder a las demandas en favor de una conciliación corresponsable en los cuidados. Son compromisos para reducir la brecha salarial entre mujeres y hombres.

No son palabras. Son compromisos. Vamos a incentivar los empleos de calidad. Vamos a poner en marcha un programa de incentivos para reducir los contratos temporales y minimizar la parcialidad de las jornadas laborales. Empleo y Vivienda. Vamos a activar un Plan de vivienda juvenil con los siguientes compromisos:

- Establecer un cupo del 50% de reserva preferente de vivienda protegida en régimen de alquiler para el colectivo joven,
- Potenciar las ayudas para rebajar los gastos del alquiler, y
- Flexibilizar el acceso al Programa Gaztelagun de acceso juvenil a una vivienda.

Vamos a desarrollar proyectos piloto, en colaboración con la juventud, para favorecer el acceso a una vivienda. Me refiero a los alojamientos dotacionales, programas de pisos compartidos y nuevas experiencias de convivencia intergeneracional. Son ejemplos que funcionan en otros países europeos y vamos a plantear en Euskadi.

Hauek dira gure konpromisoak. Zuek ere konpromisoa erakutsi duzue eta, gaur, ekarpen hori nabaritu nahi dut. Balioetan konprometitutako gazteak zarete. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin konprometituak.



## **EUSKADI**







Kultura eta kultura aniztasunarekin konprometituak. Migratzaileekin eta egoera ahulenean daudenekin elkartasuna erakusten duzue. Giza eskubideen aldeko jarrera. Klima-aldaketaren aurkako konpromisoan, Ingurumenaren aldeko konpromisoan eta ama lurraren defentsan aritzen zarete. Gazte prestatuak eta prestuak. Gure enpresei eta erakundeei modernizazioa eta etorkizunerako ikuspegia eskaintzen diezue. Gauzak eraldatzeko eta hobetzeko grina erakusten duzue. Balio guzti horiek ezinbestekoak zaizkigu eta zuekin partekatu nahi ditugu. Gizarte osoarentzako baliagarriak direlako.

Zuengan konfiantza osoa dugu. Gazte aktiboak, ekintzaileak, solidarioak eta ausartak. Eraldatzen ari den mundu berrian protagonista izatea dagokizue. Guztion artean lan egin behar dugu egungo gizartea garatzeko eta hobetzeko. Solidarioa, bidezkoa eta iraunkorra izango den gizartea eraiki behar dugu.

Aurreko belaunaldiek asko erakutsi digute. Asko sufritu dute eta gogoa erakusten dute. Asko sufritu dute eta gazte sentitzen dira. Asko sufritu dute eta indarrak alkartzea eskatzen digute. Asko sufritu dute eta hauzira ekitea proposatzen digute. Jaso dezagun beraien eredua eta gogoa:

"Gogoa nun dugu, gazteok zer gara, indarrak elkartu eta goazen hauzira"

Haientzat, guztiontzat!

Euskadi Zutik! Eskerrik asko!